

eta bekatuak Harengandik bereizi ez dituen guztiak: graziadunak. Ik. Jainkoaren grazia.

3. Sin.: San (santa): Done (dona); Jondoni. Eliza Katolikoak deitura hori ematen die bereziki kanonizazioaren bidez, beren kristau-bertuteen bikaintasuna eta heroikotasuna ezagutu eta deklaratu dien fededun hildakoei. Santu, izenaren ondoren erabiltzen da; San, beti aurretik; santa eta dona, aurretik; done, gaur gehienbat atzetik, baina izen zaharretan aurretik agertzen da. Jondoni, \*apostolu eta antzinako santuren batzuri egotzen zaie.

Ik. Santuen gurtza.

### Santu (Sanctus)

Hitz horixe hiru aldiz errepikatuz hasten den goratzarrea, erromatar liturgian eukaristiako \*prefazioaren ondoren batzarreak esan edo abesten duena. Batzutan, batzarrearen orde, koruak abeste du.

Ik. Meza; Korua, 2.

### Santu guztien eguna (jaia)

Ik. Domusantua.

### Santuen elkartasuna

Apostoluen sinboloko bederatzigarren artikularen parte da. Elizaren misterioa adierazten du, non graziak eta sakramentuek santuturiko Kristoren gorpuzkideek batasuna eraten bait dute. Gauza santuetan kristau guztiak elkarrekin duten partaidetza ere adierazi ohi du esakune horrek.

Ik. Gorputz mistikoa; Eliza; Apostoluen sinboloa; Domusantua.

### Santuen gurtza

Betirako salbatutzat ematen dituzten hildako kristau fededunei bizidunek eskaintzen dizkien adeitasuna, begirunea eta ondra: \*agurrak eginez, \*otoitzen bidez, \*prozesiotan eta bestelako jaiarazko egiteen bidez adierazten dituzte sentipen horiek.

Protestanteek ez dute santuen erlijiozko gurtza onartzen. Irudien gurtzarekin edo ikonolatriarekin lotuta egon da santuen gurtzari buruzko eztabaida.

Teologia katolikoak dulia izeneko gurtza bakarrik onartzen du santuontzat, inola ere ez \*latria edo adoraziozko gurtza. Eliza Katolikoak, berriz, hierarkiak onarturikoei (santu eta dohatsu aldarrikatuei) bakarrik uzten du gurtza publikoa ematen. Hori, berriz, Jainkoarekiko duten hurbiltasunean oinarritzen da, eta santuen bitartez Jainkoari

berari zuzentzen omen zaio nolabait ohorea eta gurtza.

Ik. Gurtza(pena); Irudiak; Ikonoa; Domusantua; Santua.

### Santutasun-sekta

Hainbat kristau-sektari egotzen dioten izena. Horrelakoetako jarraikariek uste dute benetan beren bizitza honetan santutasuna burutua dutela, edota Jainkoak aukeraturiko eta Beraren Izpirituak beteriko talde apartekoa osotzen dutela, edota \*sektaren fundatzailearekin batera santuen elkarte bereizia egiten dutela. Horietakoak dira, besteren artean, antroposofiak eta protestanteen artean sorturiko mugimendu mendekostalak edo mendekostearren elkarteak, hasierako Eliza eta bereziki haren \*karisma bereziak berritu uste dutenak.

Ik. Mendekostismoa; Santua; Antroposofia.

### Santutasuna, Elizaren

Ik. Elizaren santutasuna.

### Santutegia

1. Erlijio askotan leku edo eraikin sakratua da, gauza eta egiteko profanoetatik aterea, non bertan gordetzen bait dira liburu santuak, tresna sakratuak eta irudi jainkozkoak. Batzutan \*tenplu handiren baten barruko barrutiren bat edo \*eraikin txikiagoren bat izan ohi da, Jerusalemgo "sancta sanctorum" edo leku santu-santua bezala. Bertara sartzea debekatua edo zorrozki arautua egon ohi da. Ik. Leku santu-santua.

2. Kristau-elizen arkitekturari, aldare nagusiaren inguru guztia adierazten du, \*aldare-alde ere izendatzen dutena. Bizantziar elizetan \*ikonostasiaren bitartez dago bereizita alderdi hori.

3. Santuren baten irudi edo \*erlikia bereziki ohoratzen deneko eliza, non fededunak erromesalditan edo peleginaziotan hara joaten bait dira. Ama Birjinaren eta santu batzuren santutegiak oso entzutetsuak dira Euskal Herrian: Arantzazukoa, BegoñaKoa, Urkiolakoa, Estibalizekoa, Loiolakoa, Puikoa. Ik. Erromesaldia.

### Santutzea

Ik. Justifikazioa; Jainkoaren grazia.

### Sarbidapen-erritoak

Sin.: Sarbide-ohikuneak

Erljio guztiak dituzte sarbidapen-errito jakin batzuk, haietako batetik bestetara nahikoa ezberdinak. Euskal Herrian ere erli-

jiozko sarbidapen-errito multzo zabala landu dute, beste kulturatan bezalatsu.

Errito horien helburu funtsezkoena zera da: bizitzako egoera batetik kualitatiboki berria den bestetara igarotzea edo sarbidatzea. Esate baterako, sarbidapen-erritoen bidez aldatzen da neofitoa halako adin jakinera (pubertarora, adib.), edo halako biziera jakinera (ezkontzara, adib.) edo egoera berriren batera (jaiotzara nahiz heriotzara, adib.). Horrela begiraturik, "norberaren bizitzaren egiturazko formen aldakuntza ontologikoari dagokio sarbidea edo inimizia", Mircea Eliade-k dioenez.

Bizitzazko ezagutza berriak bereganatzen ditu eta halako izaera berria hartzen du sarbidatuak sarbidapen-erritoen bidez. "Errebelazio hirukoitza darama gehienetan berarekin sarbidapenak: zer sakratuarena, heriotzarena, sexualitatearena, Mircea Eliaderek dioenez. Autore berberaren ustez, aldakuntza sakona eragiten du gizon-emakumeengan edozein sarbidapenek: horren eraginez, beren berezko giza-ematasuna gainditu egiten dute eta \*mitoetan agertu zaien eredu bikaina berengan lantzen saiatzen dira gizon-emakumeak.

Bizitzaren eta heriotzaren esperientziaren bidez zer sakratuarekin harremanetan sartuz, gizadiaren erlijiozko goiburua gauzatzeko bidea dira sarbidapen-erritoak (G. van der Leuw).

Kristautasunak ere baditu sakramentu-izaerako sarbidapen-erritoak: \*bataioa, \*sendotza eta \*eukaristia. Bizi berrira iristeko bidea da bataioa: "Bataioaz Kristo Jesusi lotuak izan garenok, Haren heriotzari lotuak izan gara. Bataioaren bitartez Berarekin heriotzean hobiratuak izan gara; Kristo hilen artetik Aitaren aintzaz piztua izan bezala, gu ere biziera berrian ibil gaitzen" (Erm 6,3-4).

Kontu handikoa da sakramentuzko kristau-sarbidapen-erritoaren funtsezko ezaugarri bat nabarmentzea eta horrela hura beste erlijioetakoetatik bereiztea: horietako sarbidapen-erritoen esperientziaren arabera, erritoak berak eragiten du aldakuntza automatikoki eta bide magiko-sakralez. Sarbidapenari buruz kristautasunak duen ulerkeraren arabera, berriz, Kristoganako fedeak zuzenesten edo justifikatzen eta salbatzen ditu aurrenik, sakramentuarekin batera, gizon-emakumeak, Jesusen heriotzari eta \*piztuerari esker" (ik. Erm 6,1-11). Ik. Magia.

Kristau-bizitzako sarbidapenean edo kristaugintzan, bestalde, eukaristiaren lekua nabarmendu behar da, bera bait da sarbidapen-sakramentu nagusia eta beraren bitartez hartzen eta erakusten dute esanahia ba-

taioak eta sendotzak: "Liturgiatic, batez ere eukaristiatic, datorrigu grazia, beronen iturria bailitzan, eta Elizaren gainerako egiteek helburutzat duten gizon-emakumeak Kristogan santutzea eta Jainkoa gorestea lortzen da eraginkortasunik handienarekin". (Vatikanoko II. Kontzilioa, Sacrosanctum Concilium Lit. Konst. 10).

Felix Placer Ugarte  
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

### Sardea

Ik. Hiruhortza.

### Sarea

Mitologian agertzen den tresna, Jainkoak behe-izakien kontrako borrokan erabiltzen duena, etsaia arrapatzeko.

### Sarkofagoa

Harrizko zerraldoa edo hil-kutxa, sarritan kanpoaldean irudiz eta baxuerliebez landua eta apaindua. Lehen mendeetako kristauak sarritan erabiltzen zituzten sarkofagoak. Horregatik kristau-arkeologian garrantzi handikoak dira, horietako apaingarriek, fededun haien sinesteak, ihardunbidea eta sinbologia erakusten dizkigutelako.

Ik. Hilarria; Hilobi-hilarriak.

### Sarrazenoak

Erdi Aroan mendebaldar idazleek erabiltzen zuten hitza, musulmanak izendatzeko. Badirudi, jatorriz ekialdetarra esan nahi duen arabierazko hitz batetik datorrela.

### Sarrera handia

Errito bizantziar eta armeniarreko eukaristiaren ospakuntzan handikiro egiten duten prozesioa, eskaintzarako ogi-ardoak aldarera eramanez, irakurgaiak egin ondoren. Kerubinen goratzarrea edo \*kerubikona abesten dute bitartean.

Ik. Oparigintza, 2.

### Sarrera txikia

Errito bizantziar eta armeniarrean honela deritza Ebanjelioen liburua aldarera eramateko egiten duten \*prozesioari, irakurgaien liturgia hasi aurretik.

### Sasi-erlijioa

Benetan misterioa edo absolutua ez den zerbaiten inguruan sorturiko sinestean, ihardunbideen eta egituren multzoa, erlijiozko sistemaren antzera agertzen eta funtzionatzen duena. Erlijioaren ordezkoa ere esaten da, baina adiera gaitzeskorra du